

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mari Carmen Egurrola Albizu Totorika

*Gernika-Lumo,
Bizkaia (1932)*

Aurkibidea



Biografia



Gernikan jaioa, bost senidetan zaharrena. Ama Albizkoa zuen (Mendata), baserritarra, eta aita gernikarra, postaria; inprenta-enkoadernazio denda bat ere bazeukan. Bost urte zituenean, Gernika bonbardatu zuten eta etxerik gabe geratu ziren. Orduan Bilbora joan ziren lehenengo, gero Balmasedara, handik Gasteizera, eta azkenik Gernika aldera bueltatu ziren, aitak bere postari lana berreskuratu zuelako. Kortezubin egon ziren bizitzen, gero Foruan... Gernikan etxea aurkitu zuten arte. Mari Carmen gutxi joan zen eskolara, etxean laguntzea egokitu zitzaiolako; partikularrera joaten zen, egunean bi orduz. Gaztetxoa zela, Donostian egon zen neskame eta gero Gernikako hotel batean hasi zen lanean. Teodoro Totorikaguena ezagutu zuen bertan, jatorriz gernikarra baina Ameriketara bizi zena eta bisitan etorrita zegoena. Ezkondu, eta Estatu Batuetara joan ziren, 1951n (Mari Carmen Totorikaguena ipini zioten pasaportearekin eta han "Totorika" bezala da ezaguna). Ordutik Boisen bizi izan da. Euskal kultura zabaltzen ibili da han: euskara klaseak ematen, euskal kantuak eta errezetak erakusten... Euskal Etxeko presidentea ere izan zen. Zazpi seme-alaba izan zituzten.

Zintak

GER-136

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2023-09-19

- **Iraupena:** 121 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Egurrola Albizu, Mari Carmen | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com